DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Etxegintza
Vivienda

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

DONOSTIAKO BERRABEHEA KALEKO 5-15 ZENBAKIETAN DAUDEN BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN ERAIKINEAN GAINALTXATZE-JARDUKETA BAT EGITEKO AUKERAREN BIDERAGARRITASUNA AZTERTZEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK, HORRETARAKO BEHAR DEN HIRI-ANTOLAMENDUKO TRESNA IDAZTEKO ETA, HALA BADAGOKIO, HAREN ADMINISTRAZIO-IZAPIDETZEAN LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Etxegintza
Vivienda
Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

CONTENIDO

1 KONTRATUAREN XEDEA 4
2 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA 5
3 ALDAERAK 5
4 KONTRATU-AGIRIAK 5
5 KONTRATUAREN IRAUPENA 5
6 ELEMENTU EKONOMIKOAK 6
6.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA 6
6.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA 7
7 PREZIOA ORDAINTZEA 7
8 PREZIOA BERRIKUSTEA 8
9 BEHIN BETIKO BERMEA 8
10 KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA 8
11 PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA DOKUMENTAZIOA 9
11.1 PROPOSAMENAK AURKEZTEA 10
11.2 GUTUN-AZALEN EDUKIA 10
12 ESLEIPEN-IRIZPIDEAK 12
12.1 Balio-judizioaren bidez ebaluatzen diren irizpideak (gehienez 45 puntu) 12
12.1.1 Kontzeptuzko proposamen arkitektonikoa eta lehendik dagoen eraikinarekiko egokitzapena (gehienez 15 puntu) 12
12.1.2 Lanak garatzeko metodologia (gehienez 10 puntu) 13
12.1.3 Baldintzatzaileen, eraginen eta konponbide-proposamenen analisia (gehienez 20 puntu) 13
12.2 Formulen bidez automatikoki ebaluatzen diren irizpideak (gehienez 55 puntu) 13
12.2.1 Proposamen ekonomikoa (gehienez 30 puntu) 13
12.2.2 Kontratuari atxikitako taldearen esperientzia gehigarria (gehienez 20 puntu). 14
12.2.3 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: 5 puntu 14
13 EBALUAZIO-BATZORDEA 15
14 KONTRATUA GAUZATZEA 15
15 FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK 16
16 DATU PERTSONALEN BABESA 16
17 KONFIDENTZIALTASUNA 16
18 JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA 16
19 ASEGURUAK 17
20 PENALIZAZIOA 17
21 KONTRATUA LAGATZEA 17
22 AZPIKONTRATAZIOA 17
23 KONTRATUAREN ALDAKETAK 17
24 BERME-EPEA 17
25 KONTRATUA SUNTSIARAZTEA 18

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Etxegintza
Vivienda
Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

ATARIKO ARTIKULUA. KONTRATUAREN BIDEZ ASE BETE BEHARREKO PREMIAK

Etxebizitzaren Enpresa Erakunde Publikoak, Donostian etxebizitza publikoaren parkea sustatu, kudeatu eta hobetzeko esleituta dituen eskumenak baliatuz, beharrezkotzat jotzen du Berrabehea kaleko 5-15 zenbakietako babes publikoko etxebizitzen eraikina optimizatzeko aukerak aztertzea, eraikinaren bizitegi-ahalmena handitzea helburu izango duen gainaltxatze-jarduketa baten bidez.

Kontratazio honen helburua da analisi tekniko espezializatu bat izatea, eraikinaren bizitegi-ahalmena handitzeko aukeraren bideragarritasuna zehazteko eta zuzkidura-bizitoki berriak ezartzeko aukera baloratzeko, horren bidez udalerriko behar demografiko eta sozialei egokitutako etxebizitza-eskaintza sustatuz.

Horretarako, aztertu beharko da jarduketaren xede den eraikinari eta lurzatiari aplikagarri zaion ala ez Euskadiko Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 23.7 artikuluan aurreikusitakoa, gainaltxatze-jarduketen bidez zuzkidura-bizitokiak ezartzeari dagokionez, bai eta jarduketaren bateragarritasuna ere indarrean dagoen hirigintza-plangintzarekin eta aplikatzekoak diren gainerako arauekin.

Azterlanak jarduketaren bideragarritasuna zehaztu beharko du eraikuntza, egitura, hirigintza, funtzionaltasun, ekonomia eta araudiaren ikuspegietatik, eta, aldi berean, identifikatu beharko ditu hura garatzeko beharrezko baldintzak, mugak, eraginak eta betekizunak.

Era berean, kontratuak barne hartuko du gainaltxatze-jarduketa ahalbidetzeko beharrezkoa den plangintza edo hiri-antolamenduko tresna idaztea, Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritako baldintza eta irismenarekin, baita haren definizio egokirako beharrezkoa den dokumentazio urbanistiko, tekniko eta sektorial guztia ere.

Etxebizitzaren Enpresa Erakunde Publikoak, Donostiako Etxegintzak, hirigintza-tresnaren administrazio-izapidetzea sustatzea erabakitzen badu, kontratuak izapidetze horretan beharrezkoa den laguntza teknikoa ere barne hartuko du, dokumentu honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritako baldintzetan; besteak beste, errekerimenduei erantzutea, beharrezko zuzenketak edo aldaketak egitea, bileretan parte hartzea eta alegazioei zein txosten sektorialei erantzuteko txostenak eta dokumentuak prestatzea.

Kontratuan aurreikusitako prestazioak bi fasetan garatuko dira. Lehenengo faseak bideragarritasun-azterlana egitea eta plangintza edo hiri-antolamenduko tresna idaztea izango ditu barne; bigarren fasea, berriz, Entitatearen berariazko erabakiaren mende egongo da, eta hirigintza-tresnaren administrazio-izapidetzean laguntza teknikoa ematea izango du xede.

Horrenbestez, eta kontuan hartuta entitate kontratatzaileak ez duela ez baliabide pertsonal ez tekniko nahikorik deskribatutako lanak behar bezala gauzatzeko, ezta eskatzen den

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

espezializazio-mailarik ere, justifikatutzat jotzen da laguntza teknikoko zerbitzuen kanpo-kontrataziora jotzea.

1 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da laguntza teknikoko zerbitzu espezializatuak ematea Donostiako Berrabehea 5-15eko babes publikoko etxebizitzen eraikinean gainaltxatze-jarduketa baten bideragarritasuna aztertzeko. Eraikina Etxebizitzaren Enpresa Erakunde Publikoaren jabetzakoa da. Kontratuaren barruan sartzen da, halaber, jarduketa ahalbidetzeko beharrezkoa den plangintza edo hiri-antolamenduko tresna idaztea eta, entitate kontratatzaileak haren administrazio-izapidetzea sustatzea erabakitzen badu, izapidetze horretan laguntza teknikoa ematea.

Kontratuaren helburua da gainaltxatze-jarduketa baten bideragarritasun eraikitzailea, estrukturala, urbanistikoa, ekonomikoa, funtzionala eta arau-arlokoa aztertzea, erreferentziazko helburutzat hartuta gehienez hogeita hamar (30) zuzkidura-bizitoki ezartzeko aukera. Nolanahi ere, azterlanak zehaztuko du helburu horren benetako bideragarritasuna eta, hala badagokio, teknikoki, urbanistikoki, funtzionalki eta ekonomikoki bideragarria den gehieneko bizitoki kopurua.

Kontratuaren prestazioak, Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera, honako bi fase hauetan egituratuko dira:

1.Fasea. Gainaltxatze-jarduketaren bideragarritasun-azterlana eta hiri-antolamenduko tresnaren idazketa

Gainaltxatze-jarduketaren bideragarritasunari buruzko azterlan tekniko espezializatua egitea eta jarduketa hori ahalbidetzeko beharrezkoa den plangintza edo hiri-antolamenduko tresna idaztea izango ditu barne.

Fase 2. Asistencia técnica durante la tramitación administrativa del instrumento de planeamiento u ordenación urbanística

1. fasean idatzitako hirigintza-tresnaren administrazio-izapidetzean laguntza teknikoa ematea izango du helburu, eta entitate kontratatzaileak izapidetze hori sustatzea berariaz erabakitzen badu bakarrik aktibatuko da.

Entitate kontratatzaileak hirigintza-tresnaren administrazio-izapidetzea ez sustatzea erabakitzeak ez du eragingo esleipendunak 1. faseari dagozkion prestazioak gauzatu eta entregatzeko duen betebeharrean, eta ez du inolako kalte-ordain edo konpentsaziorako eskubiderik sortuko 2. fasea ez aktibatzeagatik.

Prestazioak ondoz ondo eta progresiboki garatuko dira, dokumentu honetan eta preskripzio teknikoen agirian ezarritako fase eta baldintzen arabera.

Kontratuaren xede den prestazioa unitarioa izango da, aldera batera utzi gabe lanen bi faseen arteko bereizketa funtzionala eta ekonomikoa..

Hirigintza-plangintzako edo -antolamenduko tresna idaztea 1. faseko prestazioen parte da. Izapidetze administratiboa hasteari buruzko erabakia entitate kontratatzaileak baino ez du hartuko, eta hala badagokio, 2. fasea aktibatzea ekarriko du.

Hau da kontratuaren CPV kodea:

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

71200000-0 Arkitektura-zerbitzuak eta horiei lotutakoak

Sailkapen estatistikoaren kodea (PJS):

71.11.2.- Arkitektura zerbitzu teknikoak/Eraikinetarako arkitektura-zerbitzuak

2 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Entitate kontratatzailea Etxebizitzaren Enpresa Erakunde Publikoa da (aurrerantzean, entitate kontratatzailea).

Kontratazio-organoa Entitateko Administrazio Kontseiluko lehendakaria izango da.

3 ALDAERAK

Ez dira onartzen.

4 KONTRATU-AGIRIAK

Kontratu-izaera izango dute Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren 5. klausulan adierazitako agiriek.

5 KONTRATUAREN IRAUPENA

1. Fasea. Gainaltxatze-jarduketaren bideragarritasun-azterlana eta hiri-antolamenduko tresnaren idazketa

Lehen faseak gainaltxatze-jarduketaren bideragarritasunari buruzko azterlan tekniko espezializatua egitea eta jarduketa hori ahalbidetzeko beharrezkoa den hiri-antolamenduko edo hirigintza-plangintzako tresna idaztea hartuko ditu barne, baita horri lotutako dokumentazio tekniko eta urbanistikoa ere.

Bideragarritasun-azterlana egiteko eta entregatzeko gehieneko epea sei (6) astekoa izango da, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bideragarritasun-azterlana entregatu ondoren, eta haren ondorioetan oinarrituta, hirigintza-tresna idatziko da, azterlanetik eta entitate kontratatzailearen jarraibideetatik eratorritako zehaztapenen arabera.

Hiri-antolamenduko edo hirigintza-plangintzako tresna eta harekin lotutako dokumentazioa idatzi eta entregatzeko gehieneko epea lau (4) astekoa izango da, dokumentazioa amaitzeko entitate kontratatzaileak ezarritako zehaztapenak esleipendunari jakinarazten zaizkionetik aurrera.

Adierazitako epeak esleipendunari dagozkion jarduketei baino ez zaizkie aplikatuko. Beharrezkoa denean, gehienez ere bi (2) asteko epea gehitu ahal izango da entregatutako dokumentazioari buruz entitateak egindako oharrak zuzentzeko edo osatzeko.

Entitate kontratatzaileak dokumentazioa berrikusi, gainbegiratu eta baliozkotzeko erabiltzen duen denbora ez da zenbatuko kontratua gauzatzeko epeen ondorioetarako.

Lehen fase hau amaitutzat joko da bideragarritasun-azterlana eta, hala badagokio, dagokion hirigintza-tresna entregatu eta entitateak onartu ondoren.

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

2. Fasea. Hiri-antolamenduko edo hirigintza-plangintzako tresnaren administrazio-izapidetzean laguntza teknikoa

Bigarren fasea entitate kontratatzaileak hiri-antolamenduko edo hirigintza-plangintzako tresnaren administrazio-izapidetzea sustatzea berariaz erabakitzen badu bakarrik aktibatuko da.

Administrazio-izapidetzean emango den laguntza teknikoak Preskripzio Teknikoen Agirian aurreikusitako jarduketa guztiak hartuko ditu barne, hirigintza-tresnaren izapidetze egokia bermatzeko beharrezkoak diren neurrian. Horien artean daude, besteak beste, errekerimenduei erantzutea, egin beharreko aldaketak edo zuzenketak txertatzea, beharrezko bileretan parte hartzea eta alegazioei zein txosten sektorialei erantzuteko txostenak edo dokumentuak prestatzea.

Hirigintza-tresnaren administrazio-izapidetzeari dagozkion epeak entitate kontratatzailearen, administrazio publiko eskudunen eta parte hartzen duten gainerako erakunde edo organismoen jarduketen mende egongo dira. Horrenbestez, jarduketa horietan emandako denbora ez da zenbatuko esleipendunari egotz dakizkiokeen gauzatze-epeen ondorioetarako.

Aurrekoa gorabehera, administrazio-izapidetzean zehar esleipendunari dokumentazioa zuzendu, osatu edo aldatzea eskatzen bazaio, bi (2) aste izango ditu gehienez ere dokumentazio zuzendua prestatu eta entregatzeko, errekerimendua jakinarazten zaionetik aurrera. Salbuespen gisa, jarduketaren izaerak edo konplexutasunak hala eskatzen badu, beste epe bat adostu ahal izango da entitate kontratatzailearekin.

Fase hau amaitutzat joko da organo eskudunak hiri-antolamenduko edo hirigintza-plangintzako tresna behin betiko onartzen duenean.

Bigarren fasea aktibatu bada, kontratua amaitutzat joko da esleipendunari dagozkion laguntza teknikoko jarduketak amaitu ondoren, eta, betiere, hirigintza-tresna behin betiko onartu denean, hori bere betebeharren esparruan gertatzen bada.

Entitate kontratatzaileak hirigintza-tresnaren administrazio-izapidetzea ez sustatzea erabakitzen badu, kontratua lehen faseko dokumentazioa onartu ondoren amaituko da.

6 ELEMENTU EKONOMIKOAK

6.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren gehieneko eta oinarrizko aurrekontua **36.300,00 eurokoa** da, BEZa barne (30.000,00 € + 6.300,00 €).

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko, honako kostu hauek hartu dira kontuan:

KOSTUAK/COSTES	
KOSTU ZUZENAK /COSTE DIRECTO	23.000,00 €
ZEHARKAKO KOSTUAK/COSTE INDIRECTO	7.000,00 €
GUZTIRA, BEZIK GABE	30.000,00 €
BEZa (%21)	6.300,00 €
GUZTIRA, BEZA BARNE	36.300,00 €

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

Lizitazioaren gehieneko aurrekontuak kontratuaren xede diren prestazio guztiak barne hartzen ditu, bideragarritasun-azterlana, hirigintza-dokumentazioa idaztea eta, hala badagokio, haren administrazio-izapidetzean laguntza teknikoa ematea.

Fase bakoitzari dagokion gehieneko zenbatekoa zehazteko, lizitazioaren aurrekontua, BEZik gabe, honela banatuko da:

- 1. Fasea: 1. Bideragarritasun-azterlana eta, hala badagokio, hirigintza-dokumentazioa idaztea: adjudikazio-prezioaren %80.
- 2. Fasea: Hirigintza-tresnaren administrazio-izapidetzean laguntza teknikoa ematea: adjudikazio-prezioaren %20.

Portzentaje horiek esleipendunak eskainitako prezioari ere aplikatuko zaizkio.

Lizitatzaileek **kontratuaren prestazio guztietarako proposamen ekonomiko bakarra** aurkeztu beharko dute, Administrazio Klausula Partikularren Agiriko V. eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

Eskainitako zenbatekoak ezin izango du gainditu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

Kontratuaren prezioa esleipendunak aurkeztutako eskaintza ekonomikotik eratorritakoa izango da.

6.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia **30.000,00 eurokoa** da (BEZik gabe), Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 101. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/54/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Kalkulurako kontuan hartu da kontratistari kontratuan aurreikusitako prestazio guztiak gauzatzeagatik ordain dakiokeen gehieneko zenbatekoa, BEZik gabe, 2. fasearen balizko gauzatzea barne.

Ez da aurreikusi balio zenbatetsian sartu beharreko luzapenik edo kontratu-aldaketarik.

7 PREZIOA ORDAINTZEA

Entitate kontratatzaileak prezioa Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren 8. klausulan ezarritako moduan ordainduko du.

Adjudikazio-prezioa honela banatuko da:

- 1. Fasea: Bideragarritasun-azterlana eta, hala badagokio, hirigintza-dokumentazioa idaztea: adjudikazio-prezioaren %80.
- 2. Fasea: Hirigintza-tresnaren administrazio-izapidetzean laguntza teknikoa ematea: adjudikazio-prezioaren %20.

1. faseari dagozkion ordainsariak ordainketa bakarrean ordainduko dira, dokumentazioa entregatu eta entitate kontratatzaileak onartu ondoren.

2. fasea entitate kontratatzaileak administrazio-izapidetzea sustatzea komeni dela berariaz erabakitzen duenean bakarrik gauzatuko da.

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

Fase horri dagokion zenbatekoa ordainketa bakarrean ordainduko da, dagokio laguntza teknikoa amaitu eta organo eskudunak hirigintza-plangintzako edo-antolamenduko tresna behin betiko onartu ondoren, fase honetan jasotako prestazioak behar bezala gauzatu direla egiaztatu ondoren eta erakunde kontratatzailea ados egon ondoren.

Bideragarritasun-azterlana eta hirigintza-dokumentazioa ikusita, entitate kontratatzaileak erabakitzen badu ez dela egokia edo ez dela komenigarria hirigintza-tresnaren administrazio-izapidetzea sustatzea, 2.fasea ez da egikarituko, ezta ordainduko ere.

Kasu horretan, esleipendunak soilik izango du 1. faseari dagokion zenbatekoa soilik jasotzeko eskubidea izango du, hau da, esleipen-prezioaren %80, eta ezin izango du zenbateko gehigarririk eskatu 2.fasea ez egiteagatik.

2.fasea ez aktibatzea ez da kontratuaren aldaketatzat hartuko, eta ez du esleipendunaren aldeko kalte-ordainik edo konpentsaziotik jasotzeko eskubiderik sortuko.

8 PREZIOA BERRIKUSTEA

Ez dagokio prezioa berrikustea.

9 BEHIN BETIKO BERMEA

Kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du, Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren 11. klausulan ezarritakoaren arabera.

Berme horren zenbatekoa izango da eskainitako azken prezioaren %5, BEZa kenduta.

10 KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

– **Baldintza espezifikoak:**

Ez dagokio.

– **Kaudimena:**

L izitatzaileek ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala egiaztatu beharko dituzte:

- Ekonomia- eta finantza-kaudimena. Kontratuaren xede den eremuko urteko negozio-bolumenak, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietako onenari dagokionez (urteko kontuak onartzeko betebeharra mugaeguneratuta dutenak), 45.000 eurokoa izan beharko du gutxienez, lizitatzailearen eratze-dataren edo jardueren hasiera-dataren eta eskaintzak aurkezteko dataren arabera.
  Merkataritza Erregistroan onartutako eta gordailututako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututako kontuen bidez, edo, bi kasuetan, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, lehen aipatutako hiru ekitaldietako urteko negozio-bolumena adierazita.
- Gaitasun teknikoa edo profesionala. Azken hiru urteetan gutxienez lan hauetako bat egin izana: lehendik dagoen bizitegi-eraikin baten gainean solairu berriak altxatzeko proiektuak

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

idaztea edo etxebizitza kolektiboen eraikina eraikitzeko proiektuak idaztea).
Zerbitzu-mota hori gehien eman den urtean metatutako urteko zenbatekoak 21.000 €-koa edo handiagoa izan beharko du, BEZik gabe (kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70)´

- **Giza baliabideak eta/edo baliabide materialak.**

Horrez gain, lizitatzaileek gutxienez honako giza baliabide hau atxiki beharko dute kontratua gauzatzeko:
Lizitazio honen xede diren dokumentuen erredaktorea: goi-mailako arkitektoaren titulazio akademikoa edo titulazio edo kualifikazio baliokidea izango du, behar bezala elkargokidea izango da, kontratuaren xede den lanaren koordinatzailea izango da eta erakunde kontratatzailearekiko solaskidea.

Honako hauek egiaztatu beharko ditu:

- Azken 5 urteetan, lehendik dagoen bizitegi-eraikin batean gutxienez 4 etxebizitza berri altxatzeko egikaritze-proiektua idatzi izana edo,
- Azken 5 urteetan gutxienez 30 etxebizitzako bizitegi-eraikin bat egiteko proiektua idatzi izana.

Egiaztatzeko bide gisa, azken 5 urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztuko da, horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak adierazita. Jasotzailea sektore publikoko erakunde bat bada, eskudun organoak bisatutako edo egiaztatutako agirien bitartez kreditatu beharko dira zerbitzuak; jasotzailea subjektu pribatua bada, horrek emandako ziurtagirien bidez, enpresaburuaren deklarazioaren bidez, eta, bi kasuetan, dagokion elkargo profesionalak emandako ziurtagirien bidez..

Era berean, lana behar bezala egiteko behar diren **baliabide material eta tekniko** guztiak izan beharko ditu, eskainitako prezioetan sartuta daudenak.

Konpromiso hori funtsezko kontratu-betebehartzat hartuko da SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, betetzen ez bada, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, entitate kontratatzailearen borondatez. PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA DOKUMENTAZIOA

Fitxategi elektronikoak izan arren, 1. gutun-azala, 2. gutun-azala eta 3. gutun-azala izendapena erabiliko da.

11 PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA DOKUMENTAZIOA

Fitxategi elektronikoak izan arren, 1. gutun-azala, 2. gutun-azala eta 3. gutun-azala izendapena erabiliko da.

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

11.1 PROPOSAMENAK AURKEZTEA

- **Aurkezteko modua:** Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko Plataformaren bidez, helbide honetan: http://www.contratacion.euskadi.eus.

  Helbide horretan plataformaren erabilerarako beharrezko informazio tekniko eta administratibo guztia dago eskuragarri.
- **Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza-zerbitzua**: 945016298.
- **Eskaintzak aurkezteko epea:** Hogeita hamar (30) egun natural, kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

11.2 GUTUN-AZALEN EDUKIA

Fitxategi elektronikoak izan arren, 1. gutun-azala, 2. gutun-azala eta 3. gutun-azala izendapena erabiliko da.

1.Gutun-azala: "AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek "Aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa" izeneko 1. gutun-azala aurkeztu beharko dute, eta bertan Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren 13. klausulan adierazitako dokumentazioa jasoko da.

2.Gutun-azala: "BALORAZIO-JUDIZIOAREN MENDEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

"Balio-judizio baten arabera kuantifikatzen diren irizpideei buruzko dokumentazioa" izeneko 2. gutun-azal horrek honako dokumentazio hau izango du:

Lizitatzaileek **memoria tekniko bat** aurkeztu beharko dute, proposamena justifikatzeko, balorazio kualitatiboari lotutako irizpideen arabera, jarraian adierazten diren ataletan egituratuta eta atal bakoitzari dagokion dokumentazio idatzia eta grafikoa barne hartuta.

a) **Kontzeptuzko proposamen arkitektonikoa:**Esku-hartzearen ideia orokorraren deskribapena, beharrezko dokumentazio grafikoarekin batera (eskemak, krokisak, oin-plano orientagarriak edo bolumetriak), lehendik dagoen eraikinean duen integrazioa eta gutxienez 30 zuzkidura-bizitoki ezartzeko aukera baloratu ahal izateko.

b) **Lan-metodologia:** Lanak garatzeko proposatutako metodologiaren deskribapena, egikaritze-faseak, informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedurak, alternatiben ebaluazioa eta jarduketen bideragarritasun teknikoa, hirigintzakoa, funtzionala, ekonomikoa eta arauzkoa zehazteko irizpideak barne.

c) **Baldintzatzaileen eta eraginen analisia**: Aurreikus daitezkeen baldintzatzaile, arrisku eta eragin nagusien lehen identifikazioa, bai eta horiek aztertzeko eta konpontzeko proposatutako irizpide eta estrategiak ere; bereziki kontuan hartuta jarduketak erabileran dagoen eraikin batean egingo direla.

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

Memoriaren formatua eta luzera: Aurkeztutako dokumentazioa kontzeptuala eta metodologikoa izango da, eta ez da eskatuko proiektu edo aurreproiektu baten berezko definizio-maila. Gehienez 6 DIN A4 orrialde izango ditu, azala eta aurkibidea izan ezik, eta, gainera, gehienez 2 DIN A3 orri gehitu ahal izango dira beharrezko dokumentazio grafikorako.
Gehieneko luzera:

d) **Gizarte-klausulei buruzko adierazpena:** Sektore publikoko kontratazioan gizarte-klausula jakin batzuk txertatzeari buruzko apirilaren 7ko 3/2016 Legea betez, kontratua lan-arloko, Gizarte Segurantzako eta laneko segurtasun eta osasuneko araudi indarduna betetzearen mende dagoela adierazten da.
Testuinguru horretan, lizitatzaileek 2. gutun-azal honetan aurreikusitako dokumentazioan adieraziko dute zein **hitzarmen kolektibo** aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei, propioei edo azpikontratatutako enpresetakoei, adjudikaziodun izanez gero. Kontuan izan behar da langileen soldata-baldintzak beti bete behar direla, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera.

3. Gutun-azala:"FORMULEN BIDEZ BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamena berariazko klausula administratiboen pleguari erantsitako ereduaren arabera aurkeztuko da (V. eranskina), bai eta jarraian adierazitako dokumentazioaren arabera ere.

Zehazki, proposamenak honako kontzeptu hauek jaso beharko ditu:

1. Eskainitako prezio osoa: ..... euro (BEZa barne).

Banakatuta:

- ..... euro (BEZik gabe).
- ..... euro (BEZa)

2. Kontratuari atxikitako langileen esperientziarekin lotutako kalitatea:

a) Bizitegi-eraikinetan egiturazko indartzeak dituzten gainaltxatze-proiektuen idazketan esperientzia:

Kontratuari atxikitako profesionalaren izena	Etxebizitza-eraikina (izena eta helbidea)	Hirigintza-lizentziaren data	Egiaztagiria (Bai/Ez)

b) Hirigintza-dokumentuen edo plangintzaren aldaketen idazketan esperientzia:

Profesionalaren izena	Hirigintza-tresna (izena eta helbidea)	Behin betiko onespenaren data	Egiaztagiria (Bai/Ez)

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

c) Bizitegi-jarduketen bideragarritasun-azterlanetan edo aurretiazko analisietan esperientzia

Profesionalaren izena	Etxebizitza-eraikina (izena eta helbidea)	Gauzatua (Bai/Ez)	Egiaztagiria (Bai/Ez)

Garrantzitsua: Esperientzia baloratuko da, baldin eta dagokion egiaztagiriak eransten badira eta 3. gutun-azal honetan sartzen badira (lizentziak, ikus-onetsitako proiektuak, hirigintza-plangintzako tresnaren onarpena edo beste edozein justifikazio-dokumentazio).

3. Emakumeek osatutako plantillaren ehunekoa

Lizitatzailearen plantillaren gutxienez %50 emakumeek osatzen dutela adieraztea.Bai / Ez

12 ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Esleipen-irizpideak eta horien haztapena honako hauek izango dira:

12.1 Balio-judizioaren bidez ebaluatzen diren irizpideak (gehienez 45 puntu)

Honako hauek baloratuko dira: aurkeztutako proposamenaren kalitate teknikoa, kontratuaren xedera egokitzen den eta lizitatzaileek aztergai den eraikinaren gainean balizko altxaera-jarduketa baten baldintzatzaile nagusiak identifikatzeko eta aztertzeko duten gaitasuna.

Eskaintzek gutxienez **23 puntu** lortu beharko dituzte atal honetan, prozedurarekin jarraitu ahal izateko.

12.1.1 Kontzeptuzko proposamen arkitektonikoa eta lehendik dagoen eraikinarekiko egokitzapena (gehienez 15 puntu)

Jaso ahal izateko aurkeztutako proposamen arkitektoniko kontzeptualaren kalitatea eta koherentzia baloratuko dira, bereziki honako hauek kontuan hartuta:

- Esku-hartzearen ideia orokorraren argitasuna.
- Lehendik dagoen eraikinarekiko integrazio bolumetriko eta formala.
- Hiri-ingurunera egokitzea.
- Proposatutako konponbidearen arrazoizkotasuna eta bideragarritasuna.
- Gutxienez 30 zuzkidura-bizitoki ezartzeko gaitasuna.

Ez da proiektu baten berezko definizio-maila eskatuko, baizik eta proposamenaren kalitatea eta bideragarritasuna baloratzeko aukera emango duen hurbilketa kontzeptual bat.

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

12.1.2 Lanak garatzeko metodologia (gehienez 10 puntu)

Kontratuaren xede diren lanak egiteko proposatutako metodologiaren kalitatea, koherentzia eta garapen-maila baloratuko dira.Bereziki, honako hauek baloratuko dira:

- Eskuragarri dagoen informazioa biltzeko eta aztertzeko aurreikusitako sistematika.
- Jarduketa-aukeren bideragarritasuna ebaluatzeko proposatutako ikuspegia.
- Jarduketen garapenean eragina izan dezaketen baldintzatzaileak, ziurgabetasunak eta arriskuak identifikatzea.
- Analisi konparatiboa egiteko eta alternatibak hautatzeko aurreikusitako prozedurak.
- Metodologia egungo eraikinaren konplexutasun teknikora eta ezaugarrietara egokitzea.

12.1.3 Baldintzatzaileen, eraginen eta konponbide-proposamenen analisia (gehienez 20 puntu)

Baloratuko da proposamenak kontratuaren xede diren jarduketei lotuta aurreikus daitezkeen baldintzatzaile eta eragozpen nagusiak identifikatzeko eta aztertzeko duen gaitasuna, bai eta horiek ebazteko planteatutako irizpideen eta neurrien egokitasuna ere.

Besteak beste, alderdi hauek hartu ahal izango dira kontuan:

- Lehendik dagoen eraikinaren egituratik eta konfiguraziotik eratorritako baldintzatzaileak.
- Instalazioen aldaketaren baldintzatzaileak, eraikinaren bizigarritasuna bermatuz.
- Hirigintza-, arau-, funtzio- edo instalazio-mugak
- Okupatutako eraikin batean jarduketak gauzatzearen ondoriozko eraginak, obraren fase guztietan okupatzaileen bizigarritasuna eta segurtasuna bermatuz.
- Eragozpenak minimizatzeko, segurtasuna bermatzeko eta bizitegi-erabileraren jarraitutasuna bermatzeko estrategiak.
- Arrisku teknikoak, ekonomikoak edo betearazpenekoak eta horiek arintzeko aurreikusitako neurriak identifikatzea.beste, honako alderdi hauek baloratu ahal izango dira:

12.2 <u>Formulen bidez automatikoki ebaluatzen diren irizpideak (gehienez 55 puntu)</u>

12.2.1 Proposamen ekonomikoa (gehienez 30 puntu)

Honako formula honen arabera baloratuko da:

$Vi = Bi / Max (Bs, Bmax) \times Vmax$

Non:

Vmax: eman daitekeen gehieneko puntuazioa.

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

Bs: %5.

Vi: eskaintza bakoitzaren puntuazioa.

Bmax: lizitazioan aurkeztutako gehieneko beherapena.

Bi: eskaintza bakoitzaren beherapena.

Neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jo daitekeen proposamen bat identifikatzen denean, entzunaldia eman beharko zaie proposamen hori aurkeztu duten lizitatzaileei, eskaintzaren balorazioa justifika dezaten eta haren baldintzak zehaztu ditzaten.

Ondorio horietarako, neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jo ahal izango da proposamen guztien batez besteko aritmetikoa baino 20 portzentaje-unitate txikiagoa edo handiagoa den eskaintza.

Nolanahi ere, kontratazio-organoak baztertu egingo ditu eskaintzak, baldin eta egiaztatzen badu nabarmenki baxuegiak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dituztelako betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloan aplikatu beharreko betebeharrak, estatukoak zein nazioartekoak, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne.

12.2.2 Kontratuari atxikitako taldearen esperientzia gehigarria (gehienez 20 puntu).

Kontratuaren exekuzioari atxikita dauden eta kontratuaren prestazioak gauzatzen zuzenean parte hartzen duten langileen esperientzia gehigarria baloratuko da. Ez dira baloratuko giza baliabideen gutxieneko kaudimena edo atxikipena egiaztatzeko erabilitako jarduketak.

a) Bizitegi-eraikinetan egiturazko indargarriak dituzten jasotze-proiektuen idazketan esperientzia izatea (gehienez 8 puntu)
   2 puntu emango dira egiaztatutako jarduketa gehigarri bakoitzeko, gehienez 8 puntu.

b) Esperientzia hirigintza-dokumentuak idazten edo plangintza aldatzen (gehienez 8 puntu)
   2 puntu emango dira behin betiko onartutako hirigintza-tresna bakoitzeko, gehienez 8 puntu.)

c) Bizitegi-jarduketen bideragarritasun-azterlanetan edo aurretiazko analisietan esperientzia izatea (gehienez 4 puntu).
   Puntu 1 emango da egiaztatutako azterlan gehigarri bakoitzeko (gehienez 4 puntu)

Garrantzitsua: goian adierazitako esperientzia baloratuko da, baldin eta dagokion egiaztagiriak eransten badira 3. gutun-azalean (lizentziak, ikus-onetsitako proiektuak, hirigintza-tresna baten onarpena edo egindako jarduketa, taldekidearen parte-hartzea eta irismena modu frogagarrian egiaztatzeko aukera ematen duen beste edozein dokumentazio).

12.2.3 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: 5 puntu

5 punturekin baloratuko da lizitatzailearen plantillaren % 50 gutxienez emakumeek betetzen dutela egiaztatzea.

Egiaztatzeko modua:

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamenaren V. eranskinean bete eta markatu beharko dute lizitatzaile guztiek konpromiso hori eskaintzen duten ala ez.
Eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresak bakarrik egiaztatu beharko du baliabide horiek benetan erabilgarri daudela, baldintza administratibo zehatzen agiriko 17. klausulan adierazitako dokumentuen bidez. Zehazki, langileen izen-zerrenda aurkeztu beharko du, honako hauek adierazita: sexua, kontratuen hasiera- eta amaiera-data, lanaldia eta, hala badagokio, lanbide-kategoria.

Bi lizitatzaileren edo gehiagoren artean berdintasuna badago, eskaintza tekniko onena aurkezten duen enpresak aurkeztutako proposamena hobetsiko da.

Aurrekoa gorabehera, berdintasuna mantentzen bada, plantillan emakumeen ehuneko handiena duen enpresak aurkeztutako proposamena lehenetsiko da.

13 EBALUAZIO-BATZORDEA

Kontratazio-organoak ebaluazio-batzorde baten laguntza izango du. Hauek izango dira batzordekideak:

a) Erakunde kontratatzailearen Administrazio Kontseiluko idazkaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

b) Erakunde kontratatzailearen zuzendari-kudeatzailea.

c) Sail teknikoko arduraduna edo hark eskuordetutako pertsona.

d) Sail juridikoko arduraduna edo hark eskuordetutako pertsona.

14 KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua honako baldintza hauen arabera gauzatuko da:

a) Berariazko klausula administratiboen pleguko 20. klausulan adierazitakoak.

b) Enpresa adjudikaziodunak, kontratua gauzatzean, emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzen duten neurriak ezarri beharko ditu enplegua lortzeari, sailkapen pertsonalari, sustapenari, iraupenari, prestakuntzari, ordainsariei, lan-kalitateari eta -egonkortasunari, lanaldiaren iraupenari eta antolamenduari dagokienez, bai eta kontratua egikaritzeari atxikitako langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzen laguntzen dutenak ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Enpresa esleipendunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztian, eta emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestu beharko ditu, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatu beharko ditu, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rolen eta genero-identitateen pluraltasuna sustatzen dutenak.

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

Enpresa edo erakunde adjudikaziodunak neurriak hartuko ditu lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko, hamar langile baino gehiago behar diren kontratuetan.

c) Horrez gain, SPKLren 202. artikuluan xedatutakoa betez, kontratua egikaritzeko baldintza berezi gisa, izaera sozialekoa eta kontratuen lan-egonkortasunari buruzkoa, honako hau ezartzen da: kontratistak, kontratua indarrean dagoen bitartean, hari atxikitako langileen plantillari eutsi beharko dio, eta ez da bidezkoa izango atxikitako plantilla horren lan-kontratuak etetea edo azkentzea, honako kasu hauetan izan ezik: langilearen borondatearen, diziplinazko kaleratzeen, erakunde kontratatzailearen desadostasunaren edo kontratua aurrekontu-egonkortasuneko arrazoiengatik aldatzearen ondoriozko eteteak edo azkentzeak, eta gerora sortutako inguruabarrengatik enpresa Langileen Estatutuaren 51. artikuluan aurreikusitako kasuren batean ez badago.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi hori betetzen dela egiaztatzeko, kontratua gauzatzen hasi aurretik eta haren indarraldiko hilabete bakoitza baino lehen, kontratistak kontratua egikaritzeari atxikitako langileen zerrenda aurkeztu beharko du, eta zerrenda hori aldatzen bada, aurreko paragrafoan azaldutako arrazoiak daudela justifikatu beharko du.

Kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratistei ere exijitu ahal izango zaie kontratua gauzatzeko baldintza berezi hori.

d) Esleipendunak kontratua eskaintzaren arabera behar bezala gauzatzen dela bermatzeko giza baliabide eta baliabide material nahikoak ezarri eta mantendu beharko ditu.

15 FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK

Funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira administrazio-klausula zehatzen agiriko 21. klausulan ezarritakoak.

Horrez gain, funtsezko kontratu-betebeharra izango da aurreko 14. puntuko b) eta c) letretan ezarritakoa.

16 DATU PERTSONALEN BABESA

Lizitazio honen xede den kontratua gauzatzeak ez du ekarriko, bere izaera dela eta, entitate kontratatzailearen kontura inolako datu pertsonalik tratatzea.

17 KONFIDENTZIALTASUNA

Konfidentzialtasun-betebeharra bost urtez mantenduko da, kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioa ezagutzen duenetik zenbatzen hasita.

18 JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Berariazko klausula administratiboen pleguko 26. klausulan ezarritakoak aplikatuko dira.

Entitate kontratatzailea edozein fasetan egiten diren lanen jabea izango da, eta ordura arte egindako lana entregatzeko eskatu ahal izango dio adjudikaziodunari. Adjudikaziodunak ezin izango ditu beretzat erabili edo hirugarrenei eman kontratatutako lanari buruzko zenbait datu, eta

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

ezin izango du horien edukia osorik edo zati batean argitaratu, eta erakunde kontratatzaileak beretzat gordeko ditu lanaren jabetza intelektuala eta ustiapena..

19 ASEGURUAK

Esleipendunak lanbide-arriskuengatiko erantzukizun zibileko aseguru bat eduki beharko du indarrean kontratua gauzatzen den bitartean, 350.000,00 eurokoa edo handiagoa, bere izenean sinatua, zerbitzua ematean hirugarrenei eta erakundeari eragindako kalte pertsonal eta material guztiak estaliko dituena. Aseguru-poliza aurkeztuta egiaztatuko da poliza hori badutela, bai eta kontratua indarrean dagoen bitartean poliza berritzeko konpromisoa ere.

Aipatutako aseguruak kontratatzeak ez ditu mugatuko enpresa adjudikaziodunak gainerako kontratu-estipulazioen arabera bere gain hartutako betebeharrak eta erantzukizuna. Era berean, kontratugilearen lehen mailako eta zuzeneko erantzukizuna ezin izango da murriztu, egokitu edo subrogatu aseguratzaileen baldintzetara edo jardueretara..

20 PENALIZAZIOA

Epeak (osoak edo partzialak) berandutzeagatiko penalizazioak, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, eguneko 0,60 eurokoak izango dira kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko, BEZik gabe.

Zigor bera aplikatuko da edozein betebehar edo funtsezko exekuzio-baldintza oker betetzen bada edo betetzen ez bada, baldin eta kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada. Kasu horretan, zigorra dagokion zuzenketa egiteko, betetzeko edo behar bezala gauzatzeko benetan behar diren egunen kopuruari aplikatuko zaio.

Bi kasuetan, aipatutako penalizazioak egiaztatutako kalte-galerak metatzeko modukoak dira.

21 KONTRATUA LAGATZEA

Ez da egokia, lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarria izan direla ulertzen baita.

22 AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin itundu ahal izango du honako zeregin hauek partzialki egitea, administrazio-klausula partikularren agiriko 29. klausulan eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

23 KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

24 BERME-EPEA

Berme-epea urtebetekoa izango da, kontratuaren xede diren zerbitzuak jasotzen diren egunetik edo ados dauden egunetik kontatzen hasita..

Mirakontxa Ps 48 | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20007 Donostia / San Sebastián

25 KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Administrazio-klausula zehatzen agiriko 33. klausulan zehaztutakoak izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak.
Nolanahi ere, kontratistari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik kontratua suntsiarazten bada, kontratuaren prezioaren % 25 sortuko da entitate kontratatzailearen alde, BEZik gabe. Zigor hori kalteen eta zigorren araberakoa da